

**2013KO UZTAILAREN 23AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN  
AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE JULIO  
DE DOS MIL TRECE.**

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA / ALCALDE:**

D. AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ Jn.

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES/AS:**

D. JOSU OTXOA DE ZUAZOLA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA Jn.

D. MARINO MARTINEZ DE ALBENIZ Jn.

Dª. MILAGROS LÓPEZ DE MUNAIN MENDIBIL And.

D. GENARO URIARTE SÁENZ DE BURUAGA Jn.

Dª. Mª JESÚS GÓMEZ PASCUAL And.

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE / EXCUSAN SU ASISTENCIA:**


Dª. MAR HERRERA NOGALES And.

**IDAZKARIA / SECRETARIO:**

D. IÑAKI GASTAÑARES SANCHEZ Jn.

Ozaetan, Barrundiako udaleko batzar aretoan, arratsaldeko sei eta erdietan, bi mila eta hamahiruko uztailaren hogeitahiruan, goian aipatzen direnak biltzen dira ohiko saioaren lehenengo deialdia ospatzeko, deialdira behar bezala deituak izanik, bai forma aldetik baita denboraz ere, lehendakaria Afro Olabe Martinez de Albeniz alkate jauna izanik eta Iñaki Gastañares Sánchez jauna idazkaria.

En Ozaeta, en el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las dieciocho horas treinta minutos del día veintitrés de julio de dos mil trece, se reúnen debidamente convocados en tiempo y forma los que arriba se expresan al objeto de celebrar la presente sesión ordinaria, en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario, D. Iñaki Gastañares Sánchez.



Saioa hasten da eta lehendakaritzak publikoa dela adierazten du, behin asistentzia quorum-a betetzen dela egiaztatuta. Alkate Jaunak saioan jorratuko diren gaiak ezagutarazten ditu hurrengo orrialdetan:

Abierta la sesión y declarada pública por la presidencia, una vez comprobada la existencia de quórum de asistencia necesario para que pueda ser iniciada, el Sr. Alcalde da a conocer los asuntos incluidos en el siguiente:

### GAI ZERRENDA / ORDEN DEL DÍA

**1.- Bidezkoa bada, 2013-06-18an eta 2013-06-21ean eginiko bilkuren aktak onartzea.**

Alkate Jaunak, saioari hasiera eman diolarik, Korporazioaren kideei aipatzen den aktari buruzko oharren bat adierazi behar duten galdeztzen die.

Mila Lopez de Munainek, hitz hartzen du, ekainaren 18ko aktaren 2. orrialdeko 2. puntu argitu nahi duela adierazteko, izan ere, berak lagapena egiten duenak ardura zibileko aseguruen iraunaldia urtero justifikatzea proposatu zuen eta hori, ez da aktan oso ondo ulertzen.

Argibide hauen ondoren, aipatutako aktak guztien adostasunarekin onartzen dira.

**2.- Bidezkoa bada, ekintza kulturalak eta kirol ekintzak antolatzeagatik dirulaguntzak jasotzeko proposamena onartzea.**

Afro Olabek, ezarritako epetik baino egun bat beranduago aurkeztutako Garaioneko eskaera salbuespen, proposamena aldeko irizpena jaso zuela komentatzen du.

**1.- Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones de 18-06-2013 y 21-06-2013.**

Abierto el acto por el Sr. Alcalde, pregunta si algún miembro de la Corporación tiene que formular alguna observación al acta de la sesión citada.



Toma la palabra Mila López de Munain para señalar que en el acta del 18 de junio en el punto 2 de la página 2 desea aclarar, dado que no se entiende demasiado bien, que lo que propuso fue que el cesionario justificara anualmente la vigencia del seguro de responsabilidad civil.

Tras esta aclaración son aprobadas por unanimidad las referidas actas.

**2.- Aprobación, si procede, de la propuesta de concesión de ayudas por actividades culturales y deportivas.**

Comenta Afro Olabe que la propuesta obtuvo el dictamen favorable de la Comisión, salvo en la solicitud efectuada por Garaion que había sido presentada fuera de plazo por un solo día.

Mila López de Munain comenta que,



Mila Lopez de Munainek, batzordean esan zuen bezala, deialdiaren oinarriek eskaerak aurkezko amaierako data ezartzen zutela eta ondorioz, Garaionen eskaera epetik kanpo aurkeztu zela komentatzen du. Hori kontuan ez izateak, aurrekari ezegoki bat ezartzea litzateke.

Afro Olabe, azalpen moduan, Garaionekin hitz egin duela eta epea 6an bukatzen zela buruan sartu zitzaiela esan diotela komentatzen du.

Esandakoak esan eta gero, hurrengo irizmena guztien adostasunarekin onartzen da:

*LEHENA.- eskatutako ekintzak aurrera eramateko eskaintzen diren diru- laguntzen proposamena onartzea:*

- Mariñela elkarte, diru- laguntza 987,50 €.
- Kiribilore Permakultur Elkarte, diru- laguntza 567,80 €.
- Gaztelube Elkarte, diru- laguntza 499,60 €.

Garaion Naturarteari, eskaera epetik kanpo aurkezteagatik, diru- laguntza ukatzea.

*BIGARRENA.- Interesatuei diru- laguntzen eskaintzaren berri ematea, diru- laguntza aldez aurretik justifikazioa jasoz emango dela, eta diru- laguntzak emateko irizpide eta proporcionaltasun berdina aplikatuz egingo dela ohartaraziz.*

como ya dijo en Comisión, las propias bases de la convocatoria establecieron la fecha final de presentación de solicitudes y, por tanto, la solicitud de Garaion se presentó fuera de plazo. Obviar eso supondría crear un mal precedente.

Afro Olabe comenta como explicación que ha hablado con Garaion y le dicen que se les metió en la cabeza que el plazo finalizaba el día 6.

Tras estas intervenciones es aprobado por unanimidad el dictamen que dice lo siguiente:

*PRIMERO.- Aprobar la propuesta y otorgar las siguientes subvenciones para el desarrollo de las actividades solicitadas:*

- Asociación Mariñela, la subvención de 987,50 €.
- Asociación de Permacultura Kiribilore, la subvención de 567,80 €.
- Asociación Gaztelube, la subvención de 499,60 €.

*Denegar la subvención a Garaion Naturartea por haber presentado su solicitud fuera de plazo.*

*SEGUNDO.- Notificar a los/as interesados/as el otorgamiento de la concesión de la subvención, advirtiéndoles que el abono de la subvención se efectuará previa justificación, y bajo los mismos criterios y proporcionalidad aplicados para la concesión de las ayudas.*

*TERCERO.- Requerir a los/as*



**HIRUGARRENA.-** interesatuei, 2014ko urtarrilaren 8a baino lehenago, 12. Oinarrian ezarritako epea, diru- laguntzaren justifikazioaren dokumentazioa aurkeztea eskatu.

- a) Justifikazio- Instantzia, programa edo ekintza bakoitzeko bat, eredu ofizialarekin bat eginez, eta Elkartearren Lehendakariak sinatuta.

Instantzien eredua, Udal- bulegoetan jaso daiteke.

- b) Faktura bitartez, gastuen egiaztagiria.
- c) Elkartearren Lehendakariaren Ziurtagiria, non irabazi- asmorik ez dagoela eta irabazi guztiak ekintza aurrera eramateko direla ziurtatzen den.
- d) Elkartearren Lehendakariaren Ziurtagiria, non beste era bateko diru- laguntzak jasotzen ez direla ziurtatzen den, ez dauden kasuetan. Bestelako diru- laguntzarik jasotzen bada, diru- laguntza mota eta kantitatea adierazi behar da.
- e) Bidezkoa den edozein dokumentazio gehiago.

3.- bidezkoa bada, kooperazio internazionalerako diru- laguntzen onarpena.



interesados/as para que antes del 8 de enero de 2014, plazo previsto en la Base 12, presenten la documentación justificativa de la subvención.

- a) Instancia-justificación, individualizada para cada programa o actividad, según modelo oficial, firmada por el/la Presidente/a de la Asociación.

El modelo de las instancias se podrá recoger en las Oficinas Municipales.

- b) Justificante de gastos a través de facturas.
- c) Certificado del/de la Presidente/a de la Asociación en el que se indique la no existencia de ánimo de lucro y que todos los ingresos serán destinados a la actividad.
- d) Certificado del/de la Presidente/a de la Asociación que informe de la no concesión de otro tipo de subvenciones, en el caso de que no las hubiere. Si existe otorgamiento de otro tipo de subvención se deberá indicar el tipo de subvención y la cuantía otorgada.
- e) Toda aquella documentación que se estime oportuna».

3.- Aprobación, si procede, de las ayudas a la cooperación



Batzordearen proposamena:

1.- hurrengo kantitateak, 2013ko kooperazioei diru- lagunza gisa, EUSKAL FONDOA-ko hurrengo proiektuei eman:

- 2.500 € landako 120 familiek etxebizitza beraietan eraikitzea ahalbidetzen duen proiektuari. II. Fasea. Somoto. Nikaragua. ( p236k-13).
- 2.500 € saharako errefuxiatuentzako Giza- Lagunza proiektuari. Garraio- azpiegitura garatzeko lagunza. Tindouf. RASD. (p249k-13).

2.- Indarrean dagoen udal-aurrekontuaren 313.490.000 diru-sailean kargatzeko ordainketa zuzentzea.

3.- 1.468€-ko diru- kantitatea urte amaieran esleitzeko gorde.

Bozketa egin ondoren guztien adostasunarekin onartzen da.

4.- Bidezkoa bada, UDALHITZ buruzko dekretuaren berrespenaren hasierako onarpena.

Idazkariaren azalpenen ondoren, hurrengo hitzarmena onartzea proposatzen da:

'2008- 2010ko euskal instituzioetako langileen lan- baldintzak arautzen dituen akordia –ren 4.4. artikulua berriz idaztea, jarraian ezartzen den moduan geratuko idatzita geratuko delarik:

internacional.

La propuesta de Comisión es:

"1.- Asignar las siguientes cantidades en concepto de ayudas a la cooperación del año 2013 a los siguientes proyectos de EUSKAL FONDOA:

- 2.500 € al proyecto de Autoconstrucción de 120 viviendas para familias campesinas. Fase II. Somoto. Nicaragua. ( p236k-13).
- 2.500€ al proyecto de Ayuda humanitaria para la población saharaui refugiada. Apoyo a la infraestructura de transporte. Tindouf. RASD. (p249k-13).

2.- Ordenar el pago con cargo a la partida 313.490.000 del vigente presupuesto municipal.

3.- Reservar la cantidad de 1.468€ para ser adjudicada a final de año".

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

4.- Aprobación inicial, si procede, de la ratificación del decreto sobre UDALHITZ.

Tras la explicación del Secretario se propone la adopción del siguiente acuerdo:

"Dar una nueva redacción al artículo 4.4 del "Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal laboral de las instituciones locales vascas 2008-2010", de tal manera, que



4.4. artikulua 'Langileen estatutuaren 86.3. artikuluarekin bat eginez, lanmerkatua erreformatzeko premiazko neurrien uztailaren 6ko 3/2012 Legeak egindako aldaketa barne, Hitzarmen batera heldu bitartean, honako hau indarrean mantenduko da juridikoki aplikatu beharreko kasu guztietañ".

Proposamena, guztien adostasunarekin onartu da.

**5. Trena garraio- publiko bezala defendatzeko Adierazpen Instituzionala.**

**TRENBIDE GARRAIO  
PUBLIKOAREN ALDEKO  
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

EHBILDU Barrundia eta EAJ udal-taldeek, abian dagoen arautegiaren babespean, hurrengo ADIERAZPEN INSTITUZIONALA aurkezten dute, trenbidea garraio publiko bezala bultzatzeko, Udaleko Bilkuran aurkeztuko da.

**Arrazoien aurkezpena**

Hain urrutti ez dagoen garai batean, trena gure Lurraldeko garraio publikorik eraginkorrena izan zen, baina, tamalez, azken hamarkadetan gure udalerrian gelditzen diren trenen frekuentzia murritzuz joan da. Logikoa denez, zerbitzu horretan izan diren gabeziak, trena, hiritarren beharrentzako garraio publiko ez eraginkorra izatera pasatu da eta ondorioz, erabiltzen duten pertsona kopurua pixkanaka-pixkanaka

sustituyendo al anterior artículo 4.4, quede redactado en los siguientes términos:

Artículo 4.4 "De conformidad con lo establecido en el artículo 86.3 del Estatuto de los Trabajadores, tras la modificación introducida por la redacción de la Ley 3/2012, de 6 de julio, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral, se pacta que hasta que no se llegue a un nuevo Acuerdo el presente mantendrá su vigencia en todas aquellas previsiones que jurídicamente sean de aplicación".

La propuesta es aprobada por unanimidad.


**5. Declaración institucional en defensa del transporte público ferroviario.**

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL  
EN DEFENSA DEL TRANSPORTE  
PÚBLICO FERROVIARIO**

Los Grupos Municipales EHBildu Barrundia y EAJ-PNV, al amparo del vigente Reglamento, presentan la siguiente **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**, para debate en Pleno relativa a la defensa del transporte público ferroviario.

**Exposición de motivos**

En un pasado no tan lejano el tren fue el más eficaz de los transportes públicos en nuestro Territorio pero, desgraciadamente, las últimas décadas se ha venido reduciendo la frecuencia de los trenes con parada en nuestros municipios. Como es lógico, esas



*murrizten joan da.*

Orain, 2012ko abenduaren 28an Ministro Kontseiluan onartutako, distantzia ertaineko bidaiaien tren garraio publikoen zerbitzuen arrazionalizazio planak trenen frekuentzia erdira murriztea ekarriko du. Murrizketa hau, ekainaren 23an hasi zen eta geroztik, Aguraingo, Asparrenao, Iruñea Okako, Argantzuneko eta Erribera Beitiako Udalek, Gasteizekin duten eguneroko komunikazioa arriskuan ikusten dute. Momentuz, egoera saihestu da baino arriskua egon badago.

Murrizketa posible honek, garraioa berez, gure Udalerrien herritarren eguneroko beharretarako erabilgarri ez izatea eragiten du. Hori dela eta, etorkizunean beriz ere erabiltzen duen pertsona kopurua murriztuko dela pentsatzea erraza da, eta gure ustez, Arabako gertuko-distantzia ibiltzen duten trenek behin betiko desagertzeko lehengo pausoa izan daiteke.

Badakizkigu Arabar Lurraldearen konfigurazioak dakinaren zailtasunak zeintzuk diren eta horregatik bereziki trena, Arabako bertrebrazioan ezinbesteko garraioa publiko bezala bultzatzen dugu.

Hau guztiagatik, Udaleko Bilkuran hurrengo ADIERAZPEN INSTITUZIONALA AURKEZTEN DUGU:

1.- Barrundiako Udalak, garraio publikoa Arabaren gainditu gabeko ikasgaia dela uste du, eta hori dela

carencias en el servicio han provocado que se convierta en un medio de transporte ineficaz para las necesidades de la ciudadanía y, por lo tanto, el número de personas usuarias se ha venido reduciendo paulatinamente.

Ahora, en el contexto del plan de racionalización de los servicios de transporte ferroviario de viajeros de media distancia aprobado por el Consejo de Ministros el 28 de diciembre de 2012, nos enfrentamos a un nuevo recorte en el servicio que supondrá que se reduzcan a la mitad las frecuencias de trenes. Esta reducción entró en vigor el pasado 23 de junio y a desde entonces, Dulantzi, Agurain, Asparrena, Iruñea Oka, Argantzun y Erribera Beitia han visto peligrar su comunicación diaria con Gasteiz. De momento se ha salvado la situación, pero el peligro sigue vigente.

Esta posible disminución supone que el propio modo de transporte resulte cada vez más inútil para las necesidades diarias de la ciudadanía de nuestros municipios. Por lo tanto, es fácil vaticinar que provocará una nueva reducción de personas usuarias y mucho nos tememos, sea el paso previo al desmantelamiento definitivo de cualquier atisbo de tren de cercanías en Araba.

Somos conscientes de las dificultades que entraña la propia configuración territorial de Araba y es por eso por lo que apostamos por el ferrocarril como medio de transporte público imprescindible en la vertebración de Araba.

Por todo ello presentamos al Pleno



eta, dauden azpiegitura guztiak ahalik eta gehien erabili behar direla uste dugu. Hori dela eta, Arabako Lurralde Historikoan gaur egun eskaintzen diren lurralte zerbitzu guztien frekuentziak eta geralekuak mantentzea exijitzen dugu.

2.- Barrundiako Udala, Estatuko Gobernutik inposatutako zerbitzuak murrizteko saiakeren aurka azaltzen da eta garraio mota hau defendatuko dugula adierazi nahi dugu. Era berean, kalitate oneko zerbitzua berreskuratzeko gure eskuetan dauden iniziatica guztiak bultzatuko ditugu.

3.- Barrundiako Udalak, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari, Estatuko Gobernuaren aurrean, beharrezkoa den zerbitzua izateagatik eta eskatutakoa eta era berean N-1 errepiidearen alternatiba ekologikoagoa, gertutasun gehiagokoa eta azkarragoa izateagatik garraiobide honen defentsa egitea eskatzen die. Horregatik ere, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari RENFEri beste alternatiba batzuk martxan jartzeko finantzazio konpromisoa eskatzen die.

4.- Barrundiako Udalak, Eusko Jaurlaritzari zein Arabako Foru Aldundiari, Estatuko Gobernuaren aurrean aipatutako murrizketa aurrera ez eramatea defendatzea, jasotako arazoen jarraipena egitea eta RENFEk eskainitako zerbitzuen gaineko alternatiben azterketa bat egitea eskatzen die.

5.- Barrundiako Udalak, Euskal


del Ayuntamiento la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:

1.- El Ayuntamiento de Barrundia, considera que el transporte público es la gran asignatura pendiente en Araba y por esa razón, entendemos que se deben aprovechar al máximo las infraestructuras existente. Por tanto, exigimos el mantenimiento todas las frecuencias y paradas actuales en todos los servicios regionales que se prestan actualmente en el Territorio Histórico de Araba.

2.- El Ayuntamiento de Barrundia rechaza los intentos de reducción de servicios que se ha impuesto desde el Gobierno del Estado y nos comprometemos en la defensa de este medio de transporte. A su vez, impulsaremos todas las iniciativas que estén en nuestras manos para recuperar un servicio de calidad.

3.- El Ayuntamiento de Barrundia solicita al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Álava la defensa de este medio de transporte ante el Gobierno del Estado por ser un servicio necesario y requerido y, asimismo, una alternativa al corredor de la N-1 al ser más ecológico, cercano y rápido que otros. Por ello, exige al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Álava el compromiso de financiación de la puesta en marcha de otras alternativas a RENFE.

4.- El Ayuntamiento de Barrundia solicita al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Álava que interceda ante el Gobierno del Estado para evitar



*Autonomia Erkidegoari eta Arabako Foru Aldundiari, Estatuko Gobernuko Sustapen Sailari Irun- Madrileko trenbide sarearen kudeaketa ematea exijitzea eskatzen die, non sareko Arabako zatia gehitzen den, izan ere, Gernikako Estatutuan jasotako ahalmena da, eta transferentzia hori ahalbidetzeko beharrezkoak diren prozesuei hasiera emateko eskatzen zaie ere.*

*6.- Barrundiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak Udalerrri honi, gaur egun dagoen trenbidetik eta Eusko Trenbide Sareak kudeatzen duen, Miranda eta Altsasu arteko distantzia laburreko trena ezartzeko egindako ikerketari buruzko informazioa luzatzea eskatzen du.*

*7.- Mozio hau Arabako Junta Orokoretara, Arabako Foru Aldundiira, Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarrera eta Estatuko Gobernura bidali zaie.*

**6.- Aipatutako dekretu guztien berri ematea.**

OKT-ri lokalaren lagapenaren dekretuari dagokionez, Mila Lopez de Munainek, dekretuaren eta hitzarmenaren zirriborroaren artean diferenciak daudela esaten du.

Idazkariak, garantzirik ez daukala adierazten du, izan ere izenpetzen dena hitzarmena eta bere klausulak dira.

Gai honen harira, OKT-k areto-nagusiaren giltzak eskatu dituen

*que se lleve a cabo el citado recorte, haga un seguimiento de la problemática surgida y un estudio de alternativas al servicio prestado por RENFE.*

*5.- El Ayuntamiento de Barrundia insta a la Comunidad Autónoma Vasca y a la Diputación Foral de Álava a que exija al Ministerio de Fomento del Gobierno del Estado la transferencia de la línea férrea Irun – Madrid, donde se incluye la parte alavesa de dicha línea, por ser esta una competencia reflejada en el Estatuto de Gernika, e inicie los procedimientos necesarios para lograr la citada transferencia.*


*6.- El Ayuntamiento de Barrundia insta al Gobierno Vasco a que informe a este Ayuntamiento sobre el estudio para la instauración de un tren de cercanías entre Miranda de Ebro y Altsasu, sobre el actual corredor ferroviario, y gestionado por Eusko Trenbide Sareak.*

*7.- Esta Moción será remitida a las Juntas Generales de Álava, Diputación Foral de Álava, Parlamento Vasco, Gobierno Vasco y Gobierno del Estado.*

**6.- Dar cuenta de los decretos dictados.**

Con relación al Decreto de cesión en precario de local a OKT, Mila López de Munain comenta que hay diferencias entre el decreto y el borrador de contrato.

El Secretario indica que carece de trascendencia pues al final lo que se suscribe es el contrato y sus cláusulas



Boilar, 12 • 01206 OZAETA

C.I.F.: P-0101400-J

Telf.: 945.317.006 • Fax: 945.317.126

galdetzen du.

Egiaztatuko dela erantzuten zaio, hala ere, giltzak eskatu dituenak Kilibilore Permakultur Elkartea izango zela uste da.

#### 7.- Erreguak eta galderak.

Mila Lopez de Munainek hurrengo **GALDERA** luzatzen du: *zer dela eta, ez dira udaltxean dauden 'pintadak' ezabatu?*

Gobernu-taldektik erantzuna hurrengo saioan emango dela adierazten da.

Jarrian hurrengoa luzatzen du.

**GALDERA:** *ADSL banda zabaleko konexioa heltzen ez den udalerriko herrietarako kontsulta egin al duzue?*

Afro Olabek, kudeatu dela eta informazioa hurrengo saioan emango dela adierazten du.

Mila Lopez de Munainek, hurrengo **GALDERA** luzatzen du: *Noiz jarriko du Udalak bizikletak aparkatzeko lekua? pasaden urtean, proposamena egin genuenean, Udaltxe berrira joaterakoan jarriko zenutela esan zenuten.*

Marino Martinez de Albenizek, bizikleten aparkalekua definitzeko dagoela dio, enparantza berriaren eraikinarekin erlazionatuta baitago.

Mila Lopez de Munainek, Junta Administratibo bateko lehendakari

son las que valen.

Sobre esto mismo comenta si OKT ha solicitado la llave para el salón de actos.

Se señala que se comprobará pero más bien habrá sido la Asociación de Permacultura Kiribilore.

#### 7.- Ruegos y Preguntas.

Mila López de Munain plantea la siguiente **PREGUNTA**: *¿Porque no se han eliminado las pintadas que hay en las paredes del Ayuntamiento?*

Desde el equipo de gobierno se indica que se responderá en la siguiente sesión.



A continuación hace la siguiente **PREGUNTA**: *¿Habéis hecho gestiones en referencia a la conexión de ADSL de banda ancha en los pueblos del Municipio donde no llega la cobertura?*

Afro Olabe señala que se han hecho gestiones pero que se dará cumplida información en la siguiente sesión.

Mila López de Munain expone la siguiente **PREGUNTA**: *¿Cuándo va a instalar el Ayuntamiento el aparcabicis? Cuando hicimos la propuesta el pasado año, comentasteis, que se colocaría cuando nos trasladáramos al nuevo Ayuntamiento.*

Marino Martínez de Albeniz comenta que todavía no está definido pues se considera que habrá que asociar ese tema con la construcción de la nueva plaza.

Mila López de Munain comenta



batek, Udal honetako langile batenganako bere haserreña luzatu duela komentatzen du, bere adeitasun faltagatik eta eskera bat tramatatzeko eraginkortasun faltagatik, Udal honetatik eskaera egiteko zortzi egun behar izan baitira.

Eskera kudeatzeko atzerapena, eskaera Erroldarekin lan egiten duen pertsonaren opor- egunetan egin zelako gertatu zela erantzuten da. Bestalde, eskatutako datuak urtero kontseiluen ardurapean daudela eta gainera, foruko Arautegiak ezartzen duen bezala, kontseilu- erolden arduradunak kontseiluak beraiek direla azaltzen da.

Jarraian, Mila Lopez de Munainek, udal- aldzkariko 5. zenbakian Igor Uriarteren atxiloketa salatzeko egin zen kontzentrazioari buruzko argazkia eta informazioa agertzen direla dio. Ez- ohiko bilkura eta ekainaren 20an egindako kontzentrazioa EH Bildu talde politikoaren deialdiak izan zirela dio.

Hurrengo KEXA adierazten du: berriz ere, ezker abertzaleak publikoa den baliabide bat erabili du politika egiteko.

Afro Olabe, sakontasunez erantzungo bada ere, aldzkariak udalerrian gertatutako gertakari bat buruzko informazioa besterik ez duela ematen dio.

Marije Gómezek, aldzkarian, 4. orrialdean konposta egiten interesatuta dauden pertsonei zabor-

que un Presidente de una Junta Administrativa, ha trasladado su malestar, hacia una trabajadora de este Ayuntamiento, por su descortesía en el trato y su falta de eficacia en la tramitación de una solicitud, desde este Ayuntamiento se ha tardado ocho días en gestionar tal petición.


Se responde que la tardanza obedeció a que coincidió con un período vacacional de quien puede operar en el programa del Padrón. Por otra parte se comenta que los datos que se solicitaron ya obran en poder de los concejos todos los años, y que, además, según normativa foral los encargados de los padrones concejiles son los propios concejos.

Indica a continuación Mila López de Munain que en la revista municipal nº 5, aparece una fotografía e información de la concentración en denuncia de la detención de Igor Uriarte; El pleno extraordinario y la concentración del día 20 de junio, lo convocó el partido político EH Bildu.

Plantea la siguiente **QUEJA**: Una vez más la izquierda abertzale ha hecho utilización política de un medio de difusión público.

Afro Olabe, aunque se responderá con mayor profundidad, menciona que la revista reflejó un acontecimiento noticioso que ocurrió en la localidad.

Marije Gómez comenta que en la revista, en la página 4 se indica que las personas interesadas en compostar serán bonificadas en un 20 % en la tasa de basuras, sin que esto esté aprobado



Boilar, 12 • 01206 OZAETA

C.I.F.: P-0101400-J

Telf.: 945.317.006 • Fax: 945.317.126

tasak ordaintzeko orduan %20ko beherapena izango dutela agertzen dela dio eta hori ez da inon onartu.

Afro Olabek, onartu eta erabaki gabe dagoela onartzen du baino proposamen bat besterik ez zela dio.

Josu Otxoak, egia dela baiezatzen du, proposamen bat bezala agertu behar zela dio.

en ningún sitio.

Afro Olabe señala que es cierto que está sin aprobar y decidir, sería una mera propuesta.

Josu Otxoa corrobora que es cierto que tendría que haberse recogido como una propuesta.

Gai gehiago jorratu behar ez direnean, Lehendakari Jaunak, arratsaldeko hemeretzi orduak eta hamar minutu direnean Osoko Bilkurako saioa amaitutzat ematen du. Nik Idazkariak, fedea ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levantó la sesión del Pleno siendo las diecinueve horas y diez minutos, de lo que yo, el Secretario, doy fe.

A handwritten signature in black ink, appearing to read "Iñaki Gastañares Sánchez".

Iñaki Gastañares Sánchez  
Secretario

Afro Olabe Martínez de Albeniz  
**Alcalde**

